



*Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco*



2021 02 05

SARRERA	IRTEERA
ZK.	ZK.
-	144

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 5a

ALDAIABERRI GURASO ELKARTEA

Agur t'erdil!

Aldaialdeko ikastetxea handitzeko proiektuaren egoerari buruz bidali zenidaten gutuna jaso nuen.

Bidali zenuten idazkian Espainiako Gobernuak ADIFen, Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren bidez egin beharreko kudeaketak aipatzen dira. Urtarrilaren 25ean Espainiako Gobernuko presidentearekin egin beharreko bileran planteatu beharreko galetako bat izan zedin eskatu zenuten.

Ez da bilera harten planteatu ahal izan nuen gai bat, baizik eta nik orain arte parte hartu ahal izan dudan zerbait, bai Eusko Jaurlaritzan, bai eragindako beste ordezkaritza institucional batzuetan, eta horren gainean Elkarteko kideekin izandako topaketetan, kasualitatezkoak izan ala ez, hitz egiteko aukera izan dut.

Egia da erakundeen arteko koordinazioa eskatzen duen gai baten aurrean gaudela, baina egia da, halaber, egin beharreko kudeaketek ezarritako ordena errespetatu behar dutela, garrantzitsuena proiektuak berme administratibo eta juridiko guztiak izatea baita.

Proiektu hori lehentasuneko da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat, eta azken hilabete hauetan nabarmen egin dugu aurrera. Aste honetan bertan, Gasteizko Udalaren oniritzia jaso dugu. Horri esker, dagokion obra-lizentzia gaitu daiteke, inolako baldintzarik gabe, Hezkuntza Sailak proiektuan egin beharreko aldaketak egin ondoren.

Recibí la carta que me enviaron en relación a la situación en la que se encuentra el proyecto de ampliación del Centro escolar de Aldaialde.

En el escrito que remitieron hacen referencia a las gestiones a realizar por parte del Gobierno Español a través de ADIF, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco. Solicitaban que fuera una de las cuestiones a plantear en mi reunión con el Presidente del Gobierno español a celebrar el pasado 25 de enero.

No es ya una cuestión que la pudiera haber planteado en aquella reunión, sino que es algo de lo que yo he podido participar hasta ahora, tanto en el seno del Gobierno vasco como otras representaciones institucionales afectadas, y de las que he tenido ocasión de comentar con miembros de la Asociación en Encuentros habidos, casuales o no.

Es cierto que nos encontramos ante una cuestión que requiere la coordinación entre diferentes instituciones, pero también es cierto que las gestiones a realizar deben respetar el orden establecido, porque lo importante es que el proyecto cuente con todas las garantías administrativas y jurídicas.

Este proyecto es una prioridad para el Departamento de Educación del Gobierno Vasco y a lo largo de estos últimos meses hemos avanzando de forma relevante. Esta misma semana hemos obtenido el pertinente visto bueno del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que permite habilitar la correspondiente licencia de obra, sin ningún tipo de condicionabilidad, una vez realizadas las modificaciones pertinentes en el proyecto por parte del Departamento de Educación.

.../...



.../...

Aurreko kudeaketak egin ondoren, Hezkuntza Saila prest dago orain Eusko Jaurlaritzaren barruko barne-izapidezera martxan jartzeko.

Zuen errekerimendua aintzat hartuta, zuen eskaera Hezkuntzako sailburuari helarazi diot, eta hurrengo egunetan zuekin harremanetan jarriko da, aurreratzen dizuedan informazioan sakontzeko eta partekatzen dugun helburuan aurrera egiteko.

Eskerrik asko zuen arretagatik, eta informazio hau zuen interesekoa izango delakoan, bide batez, har ezazue nire agurrik beroena.

Una vez realizadas las gestiones anteriores, el Departamento de Educación se encuentra ahora en disposición de poner en marcha la tramitación interna en el seno del propio Gobierno Vasco.

Atendiendo a su requerimiento, he dado traslado de su solicitud al Consejero de Educación, quien en los próximos días se pondrá en contacto con ustedes para profundizar en la información que les adelanto y que nos va a permitir avanzar en el objetivo que compartimos.

Agradeciendo su atención y en la confianza de que esta información resulte de su interés, aprovecho la ocasión para enviarles un cordial saludo.

A handwritten signature in black ink, enclosed in a hand-drawn oval. The signature reads "Iñigo Urkullu Renteria".

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria